

‘Geroa pasaka’ kantua 50. urteurrena ospatzeko

Amasa-Villabonako Fleming herri eskola bertatik pasa diren guztiekin gogoratu da, urtemugaren harira; osasun egoera dela eta datorren ikasturtera zabaldu dituzte ekitaldiak //5

«Ordezkapena beste bi aretoetako presidenterik zaharrena naizelako egokitu zait»

GARBIÑE BIURRUN
EPAILEA

Tolosarrak ez du erabaki oraindik EAEko Auzitegi Nagusiko presidente kargura aurkeztuko den //6

Zizurkilgo mugarri guztiak aurkitu eta ezagutaraziko dituzte

Hernandorenak egingo du lan hori; aurtengo Maiatza Saltsan gai horren inguruan ziren egitekoak, baina bertan behera utzi behar izan dute //4



ALEGIA

SALTOKIEN GARRANTZIAZ

Alegiako Udalak ‘Egin bizia herri bizian’ kanpaina abiarazi du herriko saltokien lana eskertu eta duten garrantziaz ohartarazteko. Kanpainak hainbat urrats izango ditu eta lehen pauso bezala kartelak jarri dituzte saltoki inguruetan. «Gure esku dago orain bizia eman digutenei bizia ematea», esan du udalak //3

ENERITZ MAIZETXARRI



Azken hilabeteetan lortutakoa ez zapuzteko deia

Biharko Biodibertsitatearen Egunaren harira herritarren partaidetza eta asmo ona eskatu eta eskertu nahi du Tolosako Udalaren Ingurumen Sailak.



'Etxeko Leihotik' ekimenerako herritar batek ateratako irudia. BEÑAT GOIKOETXEA

Josu Artutxa Dorronsoro

Biodibertsitatearen Nazioarteko Eguna izango da bihar eta data-ekin bat eginez, Tolosako Udalak amaitutzat eman du *Etxeko leihotik* deituriko egitasmoa. Balkoietatik eta leihoetatik Tolosan ikusi daitezkeen hegaztien argazki bilduma osatzeko helburuarekin jarri zen martxan.

Azken bi hilabeteetan, hegaztiak eta natura behatzera eta ikusitako txoriei argazkiak egitera animatu diete herritarrei, herriko espezieen bilduma sortu asmoz. «Gure muturren aurrean izan ditugu beti baina orain arte ez ditugu entzun. Familia giroan esperimintatzeko ekintza zoragarria izan da, naturaz gozatzeko eta ikasteko aukera paregabea».

Oraindik ere, argazkiak www.tolosa.eus webgunera igo edo tolosakozentroa@ingurumenmail.com helbidera bidaltzeko aukera dute herritarrek. Opari modura, Alberto Luengok egindako *Tolosako Fauna: landa-behaketa* liburuja jasoko dute parte hartzen duten guztiek.

KEINU TXIKI ASKO

Konfinamendu garaian gizakia etxean geratu bada ere, naturak bere zikloa jarraitu du; hala ere, gizakia kaletik desagertzeak nabarmen eragin du biodibertsitatean. Animalia eta landare askok kaleak bizitzeko leku seguruak

direla sentitu dute, aldi berean, kutsadura murriztu egin da, eta ibaietako ura ere garbiago dago. Hortaz, gizakiaren kalerako itzuleran, azken hilabeteetan eman diren aurrerapausoak ez zapuzteko deia egin dute Ingurumen Sailetik.

Biodibertsitatearen galerak gainera, gaixotasunak transmititzeko arriskua areagotzen duela, eta horregatik, hura babesteak egungo osasun larrialdiak eta antzekoak saihesten edo murrizten laguntzen duela zehaztu dute. «Biodibertsitateak ingurumenean, osasunean, naturan, eta azken finean, gizartean duen eragina izugarria da. Beraz, garrantzitsua da ondo zaintzea, baita gizakien ongizatean txertatzea ere», gogorarazi dute.

Hainbat ikerketen arabera, biodibertsitatearen galerak eragin zuzena du gizakien osasunean, izurriteen kontrako neurri gisa hartu izan baita biodibertsitate emankor bat. Egungo egoera, etorri daitekeenaren atariko modura hartu dute hainbat adituk, eta espezieen arteko orekaren garrantziaz ohartarazi dute. Hala, tolosarren partaidetza eta asmo ona eskatu eta eskertu nahi dute sailetik. «Norbanako bakoitzak keinu txiki asko egin ditzake, besteak beste, kontsumo arduratsua egin edota inguruko biodibertsitatea ezagutu eta zaindu».

Ligatze Jatorraren Dekalogoia osatuko dute, gazteekin batera

Egunerokotasunean naturaltzat hartzen diren jokabideak aztertuz, parekidetasunean, autonomian, errespetuan eta bakean oinarritutako harremanak eraikitzea da helburua.

J. Artutxa Dorronsoro

«Jendartean ematen diren sexuen arteko botere harreman hierarkizatuak aisialdi eremuetan ere ematen direnez», Ligatze Jatorraren Dekalogoia osatuko du Tolosako Udaleko Gazteria Sailak, herriko gazteen parte hartzearekin. «Aisialdi eremuetan eta ikastetxeetan egunerokotasunean naturaltzat hartzen diren jokabideak, aurreikuspenak eta jarre-ak aztertuko dituzte, sexuen arteko bereizketari aurre egiteko nahiz estereotipututako rolen banaketa zurruna eta hierarkizatuak ekiditeko», esan dute. Parekidetasunean, autonomian, errespetuan eta bakean oinarritutako harremanak eraikitzea eta sustatzea da helburua, balio pertsonal eta kolektiboak eraikitzeko.

Arremanitz elkarrekin lan- kideztan, Tratu Onen Mugimendu Erotikoa (To! Mugimendu Erotikoa) proiektuaren barruan ari dira osatzen dekalogoia. Gaitze prozesuak eta babestutako esperimintaziorako praktika kolekti-



Irudian, Tolosako zenbait gazte, iazko Kuadrilla Eguzaz gozatzen. I. GARCIA LANDA

boak jarri ditu martxan udalak, plataforma digitalen bidez, gazte lokaletan biltzen diren herritarrekin bilerak, dinamikak eta lan- ta prozesuak eginez.

«Pertsonen arteko harremanetan, maitasunak, erotismoak eta sedukzioak lekua hartzen duene-

an, sexuen arteko zein pertsonen arteko desorekak areagotu egiten dira». Hala, harreman erotikoen inguruan tratu onak sustatzea nahi da, hau da, intimitatea eta konfiantzazko harremanak lehen mailan kokatzeko aurrerapausoak ematea.

Laguntzak, egoera ahulean dauden maizterrentzat

J. Artutxa Dorronsoro

Herritarren zalantzak argitzen eta koronabirusak eragindako egoeren aurrean dauden laguntzen inguruko informazio eskaintzen jarraitzen du Tolosaldeko Kontsumo Bulegoak. Hala, Estatuak alokairurako onartu duen abal-lerro baten berri eman du, COVID-19aren hedapenaren ondorioz gizarte- eta ekonomia-ahultasun egoeran dauden maizterrei zuzendua. Ohiko etxebizitzaren alokairuari aurre egiteko bermatutako eta diruz lagundutako maileguen modalitateko finantzaketa-laguntza iragankorrak dira.

Kreditu-erakundeek emango dituzte maileguak. Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioaren abalaren bidez estaliko dira erabat, Kreditu Ofizialeko Institutuaren (KOI) bidez, eta ez dute inolako gastu eta interesik sortuko eskatzailearentzat.

Errentarietako edo familiako kideek eskatu ahal izango dute abala, beti ere, egoera ekonomiko ahulean badaude, langabezia egoeran edo aldi baterako enplegu-erregulazio espediente baten eraginpean badaude, edo zainketengatik edo enpresa-jarduerarekin lotutako beste egoera batzuegatik lanaldia murriztu izan bazaie.

Maileguak KOIren errentamendu-abalen 19 lerroari atxikitako edozein kreditu-erakundetan eskatu ahal dira, irailaren 30a baino lehen. Abaldun maileguaren gehieneko zenbatekoa sei hileko kuoten zenbatekoaren %100a izango da, gehienez 5.400 euro, hau da, hileko 900 euro. Maileguak amortizatze epea, berriz, sei urtera artekoa izango da.

Laguntza lerroari buruz gehiago jakin nahi dutenek, Tolosaldeko Kontsumo Bulegoarekin jarri behar dute harremanetan, 616 647 835 telefonora deituz edo kontsumoa@tolosaldea.eus helbidera mezua bidaliz.

Segurtasun neurriak betez, ohiko tokietan egingo da Tolosako Azoka

Zerkausian, Berdura plazan eta Euskal Herria plazan egongo dira postuak bigarren larunbatez

Erredakzioa

Bigarren larunbatez jarraian, Tolosako Azoka ohiko hiru gunee-tan banatuta egingo da. Beti ere, segurtasun neurri guztiak hartuta izango da. 08:00etan zabalduko dituzte ateak eta 13:00ak bitarte izango da erosketak egiteko aukera.

Zerkausian hamasei postu jarriko dira: Irati Etxeberria, Oiaralda, Barazki Bizidunak, Maria Angeles Estanga, Aritzeta Barazkiak, Edurne Arsuaga, Jose Angel Loidi, Mahala, Inaxio Gorosabel, Gregorio Balerdi, Leire Sainzar, Larte Gaztak, Amaia Sorarrain; Jose Antonio Aizpuru; Olatz Aranguren eta Fermin Legarra.

Berdura plaza lau postuk hartuko dute, eta sarrera Korreo kalean izango du: Jose Cecilio Insausti *Iguategi*, Iñigo Azpiazu,



Berdura plaza, pasa den astean. I.S.

Pio Peña eta Patxi Izagirre *Montes*. Euskal Herria plazan hamahiru postu kokatuko dituzte, eta sarrera Rondilla kaletik izango da, eta irteera Andia kalera. Hauek izango diren postuak: Iratitxut, Gervasio Perez, Jose Angel Matias, Jose Ignazio Rueda, Oiaralda, Maria Mendizabal, Luis Rodriguez, Agustin Agirrezabal, Roberto Ejea, Jose Luis Iriarte, Teofilo Gomez, Oscar Garcia eta Constantino Rueda.

Alkiza, Aduna eta Larraulen, aurten udaleku irekirik ez

Osasun irizpideak eta Eudelen gomendioak kontuan hartu dituzte ludoteka eta udaleku irekiak ez egiteko

Erredakzioa

Covid-19a dela eta jaso dituzten osasun irizpideak kontuan hartuta, eta Eudelen aholkuak jarraituz, Aduna, Alkiza eta Larraulgo udaleku ludoteka eta udalekuak ez egitea erabaki dute.

Aiztondoko ludoteka eta udalekuak aurrera eramateko «osa-

sun baldintza guztiak bermatzea» ezinezkoa egiten zaie. Aurrera begira, ondorengo azaldu dute: «Aurrerantzean, egoerak aldaketarik izango balu eta irizpideak bermatzea ahalbidetuko baligu, aztertuko genuke zer egin». Argi utzi dute hiru udalen lehentasuna «herrietako umeen eta begiraleen osasuna dela».

Astelehenean odola emateko aukera, Albizturren

ALBIZTUR // Osasun krisi betean egonagatik osasungintzak odola behar du, eta odol emaleei dei egin diete Odol Emaleen elkartetik. Astelehenean, hilak 25, Albizturren izango da odola emateko aukera. Kultur etxean 18:00etatik 20:00etara bitartean egongo dira odol emaleen zain, elkarteko kideak.

Pintxo lehiaketako irabazleak gaur ezagutaraziko dituzte

AMEZKETA // Amezketako I. Pintxo Lehiaketa egin dute, eta gaur emango dituzte saridunak ezagutzera. Epaimahaiaren saria erabakitzeke nahikoa lan izango dute adierazi dute udaletik, eta publikoaren saria, berriz, gaur 13:00ak bitartean *Atsegin dut* gehien dituen pintxoaren jabearentzat izango da.



Normaltasun itxura handiagoa hartua du Alegiako alde zaharreko kaleak, herri bizia dela erakutsiz. E. MAIZ

Herriko saltokietan kontsumoa sustatzeko kanpaina hasi du udalak

Alegiako Udalak 'Egin bizia herri bizian' kanpaina abiatu du; kanpainako lehen fase honetan, saltokiek herriarentzat duten garrantzia egin nahi du azpimarra

Eneritz Maiz Etxarri Alegia

Covid-19 iritsi aurretik ere, herri askotan egin izan dira herriko komertzio txikia babestu eta indartzeko ahaleginak, baina, orain, Alegia Udalak duten garrantzia jarri nahi du azpimarrara. *Egin bizia herri bizian* kanpaina jarri du martxan eta herriko merkatariek osatzen duten altxorra nabarmentzearekin batera, berau osatzen duten elementuak herritarrei hurbiltzea du helburu.

Kanpainak urrats ezberdinak izango ditu. Gauzak horrela, «egunotan saltoki inguruetan merkatariei eskertza adierazten dieten karteekin batera, hurrengo urrats batean bezeroek saltoki horietan jaso beharreko zerbitzua segurtasun osoz jaso ahal izateko bete beharreko neurrien berri emango da», argitu dute.

Hirugarren urrats batean, udalak herriko zerbitzuen gida osatu bat jarriko du herritarren eskura.

Koronabirusaren krisialdiak

eragindako itxialdi garaia «modu nabarmenean azaleratu du herrietan zerbitzuak izateak duen garrantzia», esan dute udaletik, eta «behar genuen guztia herrian bertan erosi beharrean aurkitu gara, eta ezinbestekoak diren sektoreetako saltokiek erakutsi duten prestutasunak frogatu du Alegia bizia duen herria dela».

SEGURTASUN NEURRIAK

Gogora ekarri dute udaletik, alarma egoera indarrean jarri zenean bertan hasi zirela merkatariek baldintza berrietara egokitzten: «Zerbitzua eskaintzen jarraitzeko aukera izan dutenek segurtasun eta higiene neurriak bermatuz lan egiten ikasi behar izan dute». Neurri berean, kontsumitzaileek ere, arau eta baldintza berrietara egokitu behar izan dute.

Duela egun gutxi bitarte, ezinbestekotzat jo ez diren sektoreetako jarduerak ateak itxita egon behar izan dute, eta batzuk, gaur, oraindik itxita jarraitzen

dute. Baina ez direla geldirik egon argi utzi nahi du Alegiako Udalak: «Egoera berriak eskaintzen dituen baldintzetara egokitzen aritu dira, berriz ere zerbitzua eskaintzeko modua izaten dutenerako guztia prest izateko helburuarekin».

Alegiako merkatariek herria bizirik mantendu dutela gogoan izatea nahi du udalak, eta horretan jarraitzen dutela ezohiko egoera honetan: «Orain herritarroi dagokigu herria bizirik mantendu dutenei bizia ematea».

Aldi berean, «beharra izan dugunean hor egon dira, eta orain eskaini diguten zerbitzu hori eskertzeko aukera dugu», azpimarratu du.

Bukatzeke, Alegiako Udalak gogoan izatea nahi du: «Gure esku dago orain bizia eman digutenei bizia ematea. Herri bizi batean bizia egiten badugu, denok aterako gara irabazten».

Alegiako Udalarentzat, itxita ala irekita, herriaren taupada dira saltoki eta tabernak.

Zizurkilgo Hernandorena kultur elkarteak, udalarekin lankidetzan, herriko mugarri guztiak aurkitu, garbitu, dokumentatu eta herritarrei ezagutarazteko lana egingo du 2020an zehar.

Herria biltzen duten harriak

Jon Miranda Zizurkil

Zortzi herrirekin egiten du muga Zizurkil: Aia, Usurbil, Zubietia (Donostia), Andoain, Aduna, Villabona, Anoeta eta Asteasurkin. Hernandorena kultur elkarteak erregistratutako, gutxienez, 70 mugarriren berri izan du eta falta direnak aurkitu, topatutakoak garbitu eta dokumentatzen emango ditu hurrengo hilabeteak, osasun egoerak ahalbidetzen badu behintzat. Gero, elkartekoek ohitura duten bezala, argitalpen batean herritarren eskura jarriko dute informazio guztia.

Dokumentu eta artxibo zaharrak astinduz, barruan egin beharreko sator lana eta herriko mugetan barrena egiteko dagoen landa lana bereizi ditu Joxin Azkue Hernandorena kultur elkarteko kideak. «Askotan mugarriak ez dira oso errazak aurkitzen, leku zailtan egoten baitira, erreka zuloetan edo otez jositako mendi tontorretan. Lan luzea da, joan, buelta handia eman, eta askotan ezer aurkitu gabe itzuli behar izaten dugu etxera».

Udalerrri baten lur eremua noraino iristen den mugatzeko, maiz, elementu naturalak erabiltzen dira. Horrela gertatzen da, adibidez, Villabona eta Zizurkil artean Oria ibaiarekin edo Salobietia errekararekin, Aduna eta Zizurkil artean. Ohikoenak mugarririk izaten dira, ordea, «harri berezi eta nabarmenak, garai batean bezala, orain ere, garrantzia handia dutenak». Mugarri zaharrak aurkitu ez, betirako galdutzat eman eta berriak jarri izan badira ere, orain arteko bilketan Hernandorena elkarteko kideek mota askotakoak topatu dituzte. «Mugarri zahar askok gurutze bat zizelkatuta daramate; oso ohikoa da, baita ere, mugarraren gainean muga-lerroa adieraztea eta udalerrri mugakide bakoitzaren inizialak zizelkatzea».

Zizurkil, Aia eta Usurbilen lur eremuen muga adierazteko Andatza mendiaren magalean jarritakoak, esate baterako, hiru herriren artekoa adierazten du, baina Zizurkil bada lau udalerrri



Orreagaren jabetzako lurren eta Zizurkilgoen arteko muga adierazten duen XIV. mendeko mugarrria. HERNANDORENA

mugatzen dituen mugarrria ere: Laumugarrieta. «Zizurkilgo hegoaldeen dagoen puntuan lekututa, Zizurkilek, Asteasuk, Villabonak eta Anoetak egiten dute bat toki horretan».

Zizurkil herri berezia dela dio Azkuek: «Luzea da eta biztanle denak hegoaldean bizi gara. Elbarrena oso hegoaldean dago eta herrigunea bera ere bai, herriaren beheko partean dago. Hortik gora dago udalerrriaren %70a. Paraje ederrak dira, zoragarriak, baina jende gehienak ez ditu eza gutzen. Toki horiek aparte daude, oinez joan beharra dago, eta ordubetetik gora behar izaten da bidea egiteko. Inguru horretan daude mugarri gehienak eta zailak dira aurkitzen, besteak beste, baserriak gutxituta daudenetik ingurune horiek basoak eta sasiak hartuta daudelako».

ORREAGAREKIN GATAZKA

Mugarrien proiektuaren inguruko ikerketa abiatzerako orduan, Erdi Aroko informazioarekin egin dute topo Hernandorenako kideek. XIV. mendera arte zabalagoak ziren Zizurkilgo lur eremuak, eta iparraldean, Andatza mendiko herri lurak abeltzaintzarako erabiltzen zituzten herritarrek. XIII. mendean Fernando Blancafort izeneko zaldunak, do-

haintzan eman zizkion Andatza inguruko lurak Orreagako Santa Maria errege kolegiatari. Lurra ustiatzen zuen komunitatearen eta Orreagako komentuarien arteko gatazkak hasi ziren orduan: «Andatza mendiaren iparraldeko isurian oso harrobi preziatuak zeuden, errotarriak egiteko proposa zen harria ateratzen balio zutenak. Horrela ulertu daiteke Orreagak inguru horren jabetzari eusteko erakutsi zuen interesa».

Gatazka ebazteko dokumen-

«Askotan mugarriak ez dira errazak aurkitzen, leku zailtan aurkitzen baitira»


JOXIN AZKUE
HERNANDORENA ELKARTEA

tua ere topatu dute Hernandorenakoek Zizurkilgo artxiboan. 1389. urteko pergamino ikusgarri bat da, Azkueren esanetan: «Zehatz-mehatz jasota dago mugarririk kokapena, toponimo eta guzti, eta sinestezina bada ere, oraindik ere zutik diraude mugarri horietako gutxi batzuk, hiruzpalauk. Orreagako monasterioaren ikurra zizelkatuta daramate».

Hernandorena elkarteak Javi Castro eta Yoseba Alonso adituen laguntza jasoko du proiektu honetan. Biak ere, aurrez, Usurbilgo udalerrientzat lanean aritu izan dira eta lankidetzan jardungo dute, orain, zizurkildarrekin. Haien eskutik etorri zaien ezusteko baten berri eman du Azkuek: «Uste genuen Zizurkilgo artxibon topatutako pergamino zaharra agiri bakarra zela, baina, hara non, Orreagan bertan, Castrok eta Alonsok bigarren bat topatu duten, hemen herrian duguna osatzera datorrena. Dokumentuari falta zitzaion zatia aurkitu dute».

Zizurkilgo kultura batzordeak, aurrez, gai honen bueltan antolatua zuen Maiatza Saltsan ekimena, baina osasun larrialdiagatik bertan behera geratu dira ekitaldiak.

Hala ere, egoerak baimentzen duen neurrian, lan honekin jarraitzeko konpromisoa agertu dute Hernandorena elkarteko kideek.



Erregistratuta dauden 70 mugarren mapa egin du elkarteak. HERNANDORENA



Ikasle ohi, guraso, irakasle eta gaur egungo ikasleek hartu dute parte urteurreneko kantua osatzen; argazkian urteurreneko batzorde kideak eta musikariak. J.M.

Amasa-Villabonako Fleming herri eskolak 50 urte bete ditu aurten eta urtemuga ospatzeko 'Geroa pasaka' kantua osatu dute, ikasle ohien laguntzaz.

Hi, ba al hator gurekin?

Jon Miranda Amasa-Villabona

Berrogeita hamar urtean geroa pasaka, elkarren eskutik bidea egin. Hemen denok berdin: Hi!? Ba al hator gurekin? Beraz, hator gurekin». Oihana Iguaran Fleming herri eskolako ikasle ohi eta bertsolariak osatu ditu ikastetxearen 50. urteurreneko kantuarien hitzak. Musika jartzeko lana, umetan bertan ibilitako Iñaki Lizaso eta Yera Gasconek hartu dute. Eta abestia osatzeko gaur egungo ikasleek, garai batekoek, irakasleek eta gurasoek parte hartu dute. Komunitate osoa bat egin da, «eutsiko gaituen hesola baita Fleming herri eskola».

Ikasturte hasieran abiatu zuten 50. urteurrena ospatzeko egitasmoa Amasa-Villabonako eskola publikoan. Aizpea Zabala,

irakasle eta urteurrena antolatzeke batzordeko kideak aipatu duenez, zehatz-mehatz ez dakite noiz sortu zen eskola, baina 50 urte inguru dira Fleming izena darabilela: «Hasiera batean 50+ bezala izendatu genuen urtemuga eta azkenean egi bihurtuko zaigu, osasun egoeragatik ekitaldiak atzeratu egin zaizkigulako eta hurrengo ikasturtera ere zabalduko dugulako ospakizuna».

Iazko urrian ospatu zuten aniztasunaren festan jarri zuten abiapuntua. Orduan aurkeztu zituzten urtemugarako aukeraturako leloa eta irudia eta batzordean parte hartzen duen Iyuya Urrutiak azaldu duenez, herrian errebotearen jokoak izan duen ibilbideari keinu bat egin nahi izan zioten. «Batzordean galde-tegi bat pasa ondoren jasotako proposamenekin osatu genuen 50 urtez geroa pasaka leloa. Iru-dian ere hori islatzen saiatu gara,

herri eskolatik pasa garen guztiok osatzen dugula Fleming, eta aniztasun hori, kolore ezberdinetako pilotekin adierazi nahi izan dugu».

Eskolatik pasa diren ikasle eta irakasleekin argazki saio bat egin da urtemugaren barruan antolatutako beste ekitaldi garrantzitsu bat. Pertsona jakin batzuei luzatu zitzairen parte hartzeko gonbita, baina berehala zabaldu zen asmoa herrian. Zabalak azaldu duenez, horrek adierazten du ikas-komunitatean «gogoia eta ilusioa» bazeudela zerbait berezia egiteko. «Honenbestez gu ere indartu eta motibatu egin gara, iruditzen zaigulako erantzun bat eman behar zaiola gogo horri».

Asmo horretan zebiltzan urteurrena antolatzeke batzordean COVID-19aren krisia iritsi zenean. Asmo guztiak zapuztu zaizkiela adierazi du Gotzone

Bernabe, guraso eta batzordeko kideak. Ekaineko bigarren larunbatean ospatu ohi duten festa, modu berezian zetorren aurten: «Normalean umeek dantzaldi egiten dute eta gero bazkaria izaten da, baina aurten, ikasle ohiak, irakasle izandakoak, herritarrak, eta oro har, fleming-kide guztiak gonbidatu nahi genituen. Zoritxarrez ez da posible izango eta aurten ez bada, beste okasio baterako utziko dugu ospakizuna».

Festa horretan aurkezteko asmotan ziren Fleming herri eskolaren inguruan osatu den batukada. Maider Pazosek parte hartzen du taldean eta bera bezalako guraso gehiago, irakasle eta ikasleek osatzen dute 30-35 laguneko taldea. «Penaz» hitz egin du Pazosek, baina iragarri du datorren ikasturtean taldearekin jarraitzeko asmoa dutela eta bertara batu nahi direnak

«gustu handiz» jasoko dituztela batukadan.

KOMUNITATE GUZTIA KANTUAN

50. urtemugak bere kantua behar zuela argi ikusi zuten batzordean, hasiera hasieratik. «Eskolan musikak garrantzia handia du, umeek kantua eta dantzak gustukoak dituzte, beraz pentsatu genuen polita izan zitekeela. Eta zer egokiagoa, zeregin horretarako Flemingetik pasa diren ikasle ohiak gonbidatzea baino?», esan du Urrutiak.

Iñaki Lizaso eta Yera Gascon herri eskolan ibilitakoak dira. Biak dira musikariak, lehena Bihozkada taldean, bigarrena Habin. Entsegu lokalak elkarren aldamenean dauzkate, eta beraz, elkarrekin abiatu zuten kantuarien oinarria izango zena osatzeko lana. «Rock taldeetan ibiltzen gara biak eta ez gaude horrelako lanetara ohituta, baina hasieratik argi ikusi genuen kantua alaia behar zuela, dantzagarria, umeentzako egin eta erraz kantatzeko hitzak izango zituen», aipatu du Gasconek. «Oihanari gauzak ahalik eta errazen jartzen saiatu ginen, maketa horretan silabak grabatu genituen, gero berak letraz bete zitza».

Akorde sekuentziak sortu eta melodia batzuk gehitu zizkieten kantuari, Lizasok azaldu duenez. Kantua «nahikoa espontaneoki» sortu dutela aipatu dute bi musikariek. Berez, ikasle ohi gehiago gonbidatu nahi zituzten abestian parte hartzera, baina alde hori «sakrifikatu» eta abesti «polita eta ahalik eta txukunena» egiten saiatu direla aitortu du Gasconek, «zaila baita hainbeste jende aldi berean elkartzea». Hala eta guztiz ere, Sin mala intención taldeko Gorka Lizasok parte hartu du ahotsa jarritz, Javi Rivero sukaldariak baxuarekin lagundu du eta gaur egun guraso den Zigor Lamprek ere egin du bere ekarpena. Gaur egungo ikasleak ere kantuan aritu dira *Geroa pasaka* abestian eta Elkar estudioetan egindako grabazioan parte hartu ahal izan dute.

Emaiztarekin «oso gustura» daudela aitortu dute bi musikariek eta helburuak bete dituztela uste dute. Abestia bera entzuteko aukera dago www.flemingeskola.eus helbidean. Baliabide guztiak jarri dituzte herritarren eskura, baita Eneritz Ugarte-mendiak eta Oier Labordek osatu duten koreografia ere. Konfinamendua hasi aurretik grabatu asmo zuten bideo klip jendetsurako prestatua zituzten pausoak. Oraingoz, gerora pasatu dute asmoa.



MIKEL IRAOLA

«Oraindik ez dakit kargurako behin betiko aurkeztuko naizen»

GARBIÑE BIURRUN EPAILEA

Ekainaren 21ean hartuko du EAEko Auzitegi Nagusiko presidente kargua, behin behinean, Juan Luis Ibarra ordezkatzuz; hauteskunde batzordeko presidente izango da ere

Iñigo Terradillos / Irati Saizar

Juan Luis Ibarra egungo EAEko Auzitegi Nagusiko presidenteak 72 urte betetzen dituen egunean hartuko du bere kargua, behin behinean, Garbiñe Biurrun (Tolosa, 1960) epaileak.

Zein da beteko duzun kargua?
EAEn justiziak daukan ordezkari

ritzarik nagusia da. Egiteko bi-koitza du: alde batetik, gobernu kontuak ditu, hau da, Euskadiko justiziaren egunerokotasuna mantentzea edota gobernu arazoak konpontzea, eta bestetik, jurisdikzio edo epailetza lana dago; zibil eta penal arloko sala presiditza dagokigu eta auzietan sartzea.

Behin behinean hartuko duzu kargu hori.

Juan Luis Ibarra erretiroa hartuko du ekainaren 21ean eta bere postua betetzeko deialdia egingo dute, eta bitartean arituko naiz ni. Ez dakigu, ordea, postua noiz beteko den. Izan ere, epeak bete behar izaten dira eta hautagai guztiek agerraldi bat egin behar izaten dute kontseilu nagusiaren aurrean. Gutxienez hori guztia egiterako uztaila iritsiko da, eta abuztuan oporrak direnez, nik uste urrian bete daitekeela postu hori beste bost urtetarako.

Nolatan hautatu zaituzte zu?

Nire postuan beste bi aretoetako presidenterik zaharrena naizelako tokatu zait ordezkapena. Ordezkatu izan dut Ibarra gehiagotan ere, bajaran egon izan denean edota oporretan zegoenean. Baina, orain desberdina izango da, Ibarraen figura desagertu egingo delako erretiroagatik, eta hor bakarrik geratuko naiz.

Orain behin behinean hasiko zara, baina hautagaien artean izango zara?

Ez dut pentsatu oraindik, ez dakit zer egingo dudana. Ni orain betetzen ari naizen postuaren deialdia ere egingo dute, eta pentsatu behar dut berriro horra aurkeztuko dudana nire eskaera edo Auzitegi Nagusiko presidente izateko aurkeztuko naizen.

EAEko Auzitegi Nagusiko presidentea, EAEko hauteskunde batzordeko presidentea ere bada.

Bai, horrela da. Eta kasualitatez hauteskundeak egongo direnez, niri tokatuko zait. Lan horretan, alde batetik, hautagaien zerrendak onartu behar dira, koalizioak ere begiratu behar dira. Bestetik, hedabide publikoetan alderdiei ematen zaien denbora banaketa neurtu behar da ere. Eta gero, emaitzak publikatzen dira eta emaitzen aurkako helegiteak ere ebazten ditugu.

Mikroipuin onenak saritu dituzte Berastegin

Guztira 42 herritarrek hartu dute parte III. Mikroipuin Lehiaketan; egoera aldatzen denean egingo dute sari banaketa ekitaldia

Erredakzioa Berastegi

Hirugarren urtez jarraian antolatu du Mikroipuin Lehiaketa Berastegiko udal liburutegiak. Apirilaren 26an zen ospatzekoa sari banaketa, baina egoerak eraginda, irabazleak sare sozialen bidez zabaldu dituzte.

Epaimahaiak «nahikoa lan» izan duela azaldu dute antolatzaileek, eta izandako «maila altua» nabarmendu dute. Maila guztietan 42 parte hartzailek idatzi dute mikroipuin bat.

Lehenengo mailan, 12 urte bi-

tartekoetan, Maitane Ugarte-mendiak jaso du lehen saria eta Jon Lasak bigarrena. Bigarren mailan, berriz, 12 eta 16 urte artekoetan Miren Aranaldere mikroipuina izan da lehen saria jaso duena eta Uxue Garmendiak jaso du bigarren saria. Eta azkenik, hirugarren mailan, helduetan, Alazne Saizar izan da irabazlea eta Amaia Azkue geratu da bigarren. Maila horretan, aipamen berezia jaso du Irati Saizarren lanak.

Ipuin sarituak Aidanen urtekarian argitaratuko dituzte.

Izaskungo festak bertan behera geratu dira

Erredakzioa Ibarra

Maiatzaren 30etik ekainaren 1era ospatzekoak ziren Izaskun auzoko jaiak. Auzoko festa batzordeak, ordea, jaiak ospatzeko baldintzarik ematen ez dela ikusita, bertan behera uztea erabaki du. Beraz, datorren urtera arte ez da festarik ospatuko Izaskun auzoan.

Festa batzordeak duela hilabete inguru adierazi zuen jaiak ospatzeko baldintzak kolokan zezudela. Zain egon dira denborak gauzak aldatu zitzakeen aztertzen, baina erabaki bat hartu beharrean ikusi dira eta hartu dute dagoeneko: «Egoeraren garapena ikusirik, bertan behera utziko ditugu aurtengoan, datorren urtera arte».

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Urola Kostako
eta Goierriko
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 110 € • Harpidedunentzat 55 €
HANDIA (124mm X 63,5mm): 160 € • Harpidedunentzat 80 €
ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 60 € • Harpidedunentzat 30€
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu



OSTEGUNA, 2020KO MAIATZAK 21
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetaldea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: 943 30 43 46



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larrauri, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



Aurrera pausoak, beti ere maskara jarrita

Asteburuan kontrakorik iragartzen ez badute eta gauzak ondo, bigarren fasean sartuko da Tolosaldea astelehenean; gaurtik, gainera, maskara erabili behar da

Erredakzioa Tolosa

Pixkana-pixkana eskualdea bigarren fasera gerturatzen ari da eta honenbestez, zerbitzu gehiago hasiko dira martxan, mugekin beti ere. Horrekin batera, Espainiako Gobernuak kendu egin ditu herritarrek kalera ateratzeko dituzten ordutegiak 10.000 biztanletik beherako herrietan. Neurria ez dute Estatuko Aldizkari Ofizialean iragarri oraindik, hala ere.

Horiek horrela, Amasa-Villabonan ere aurki ordutegirik gabe ibili ahalko dira, eta ondorioz eskualdean Tolosa izango litzateke kirola egiteko eta paseorako ordutegiak dituen herri bakarra. Ordutegiak moldatu dituzte hala ere: helduentzako (14 urtez gorakoak) ordutegiak malgutu egingo dira, eta 70 urtetik gorakoen tzat gordetako tarteetan (10:00-12:00 eta 19:00-20:00) ez beste guztietan atera ahal izango dira kalera paseatzera edo kirola egitera: 06:00etatik 10:00etara, 12:00etatik 19:00etara eta 20:00etatik 23:00etara.

Eusko Jaurilaritzak bi orduz aurreratu edo atzeratu ditzake tarte horiek, hala ere. Hamabost lagun arteko taldeak atera ahaliko dira elkarrekin kalera, beti segurtasun tarte eta arauak gordez.

BERRIKUNTZAK

Berritasun gehiago ekarriko ditu bigarren faseak. Jatetxeek atea ireki ahal izango dituzte, eta tabernek ere barruan hartu ahal izango dituzte bezeroak, edukieraren %40 gehienez. Eserita egon beharko dute bezeroek, eta ezingo dute barran kontsumitu. Kultur azpiegiturei dagokienez, zinema aretoak, antzokiak eta monumentu multzoak ere ireki ahal izango dira bigarren fasean. Areta itxietan, ikusleek aldeaz au-



Amasa-Villabonan ordutegirik gabe ibili ahal izango dira aurki. JON MIRANDA

rretik izan beharko dute euren eserlekua gordeta (Internetez erostea gomendatu dute) eta ezingo da edukieraren %30 gainditu, ezta 50 pertsona baino gehiago bildu ere.

Aire zabaleko kultur ekitaldietan, ikusleek eserita egon beharko dute, segurtasun tarteak mantenduz, eta horietan ere ezingo da edukieraren %30 gainditu, ezta 400 pertsona baino gehiago elkartzeko ere. Monumentu multzoetako bisiten kasuan, ohi duten edukieraren herena izango dute. Kultur azpiegitura guztiak, ireki aurretik, garbitu egin beharko dira, eta garbiketaren horrek ondare kulturala arriskuan jartzen duen kasuetan, ezingo dira ireki.

Erakusketa aretoei dagokienez, bisitariak bi metroko distantzia gordetzen dutela ziurtatu beharko dute, eta inaugurazioak saihestu beharko dira, jendea ez pilatzeko.

Liburutegiak edukieraren %30arekin ireki ahal izango dira, eta bigarren fasean dauden liburutegien artean liburuak uztea posible izango da. Haurrentzako guneak itxita egongo dira aurrerantzean ere.

Kirol azpiegiturak eta igerile-

kuak ireki ahal izango dira maiatzaren 25etik aurrera, baina txanda hartu beharko da horietarako; jolasarako igerilekuak ere bigarren fasean irekitzea aurrerakosten dute. Jaunartzeak eta ezkontzak ere ospatu ahal izango dira, baina hainbat baldintzarekin: ezkontzen kasuan, gehienez 100 pertsona elkartzeko ahal izango dira aire zabalean, eta 50 leku itxietan. Hildakoen beiletan egoteko kopuru gehienezkoa ere handitu egingo dute: 25 leku irekietan, eta hamabost leku itxietan.

MASKARAK, GAURTIAK

Horrekin batera, gaurtik, 6 urtetik gorako pertsonak maskarak erabili beharko dituzte, derrigor. Erabilera publikoa duten espazio itxi guztietan eta aire zabalean izango da derrigorrezkoa, bi metroko segurtasun tarte gordez ezin den tokietan. Arnasa hartzeko arazoak dituztenak salbuesita daude, baita beren osasun egoeratik edo mendekotasunen bat dutelako maskaren erabilerak kalte egin diezaikeen pertsonak ere. 3 eta 5 urte bitarteko haurrentzat, beharrezkoa ez, gomendagarria izango da, arau horren arabera.

OSTEGUNA 21

ATARIA IRRATIA

09:00-11:00. Pasahitza. Eguraldi iragarpena Iker Ibarluzearekin, eskualdeko berrietan Mikel Prieto historialaria ariko da Baliarraingo historiari buruz egin duen ikerketari buruz eta eguneko elkarrizketari (Eneko Maior, Oresa alkatea eta Gipuzkoako EH Bilduko koordinatzailea, foru funtsa %20 murrizteari buruz).

11:00-12:00. Eutsi Goiari. Kirol saioa.

14:00. Entzuteko jaioak. Musika saioa.

16:00. Zebrabidea. Arrosa sareko magazina.

18:00. Goizeko saioen onena.

20:00. Mestibull. Musika saioa DJ Bullek gidatuta.

28 KANALA

OSTEGUNA

11:00. Ane Lore sukaldean

11:30. Gaurkoan Tolosaldeko

12:30. 1, 2, 3 hemen da Miru!

17:00. Adinberri

17:30. Gaurkoan Tolosaldeko

22:00. Spinning klasea

21:30. Gaurkoan Tolosaldeko

OSTIRALA

11:00. Elkarrizketap

11:30. Gaurkoan Tolosaldeko

12:30. 1, 2, 3 hemen da Miru!

17:00. Adinberri

17:30. Gaurkoan Tolosaldeko

21:30. Gaurkoan Tolosaldeko

22:00. Amets yoga estudioa

23:30. Gaurkoan Tolosaldeko

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Eguneakoa. Jesus Mari Etxebeste Elozegi. Gernikako Arbolen lorategiak, 3. Telefono zenbakia: 943 65 10 40.

TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz Galarza. Larramendi kalea, 6. Telefono zenbakia: 943 67 5118.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA



Gaur. Giro eguzkitsua jarraipena izango du. Egun osoz zerua erabat urdin mantenduko da, nahiz eta, lehen orduetan hodeiren bat edo beste azal litekeen. Haizeak aldakor joko du eta tenperatura altua izaten jarraituko du, maximoak 27-29 graduan joko duelarik goia.



Bihar. Hodei gehiago izango dira. Goizean giro polita izango da, non zerua nahiko urdin egongo den. Egurditik aurrera haizeak ipar-mendebaldeko ukitua hartuko du eta horrekin hodeiak ugarituko dira, batez ere, egun amaieran, non zerua nahiko zikin geratuko den. Tenperaturak behera egingo du eta maximoa ez da 24-25 gradutik pasako.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



BIDANIA - GOIATZ
672 798 852
mikellasaiturgintza@gmail.com

Iturgintza

Gasa

Berokuntza

Energia

Berriztagarriak